

# noaua

57 lursail jarriko dira  
herritarren esku,  
baratzeak lantzeko

Langabezia-tasa,  
goranzko joeran


Eusko Legebiltzarrerako  
hauteskundeak  
emaitzak Usurbilen



## Gari Udabe:

“Esperientzia ederra izan da”

HAUR DENDA BERRIA  
USURBILEN!



KALE MAGUSIA 10 BEZEA, USURBIL



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

**943 36 21 63**  
**660 388 652 - 608 16 77 92**

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- TANATOPRAXIA** eta **BERRERAIKETA** zerbitzua Euskal Herrian eta atzerrian.
- ADN frogak** eta **ADN gordagailuak**
- BEILATOKI GUZTIETAN** zerbitzuak
- ERRAUSKETA** eta errauts-kutxak
- ASEGURU** konpaini **GUZTIAK**, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Asegururik **EZ** duten familientzat Usurbilgo beilatokia **DOAN** izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



Aseguru Artekaritza

**GESTORITZA ZERBITZUA JARRI DUGU!**  
**Autoen esku-aldaketak, Garraio-txartelak...**

**SEGURO MOTA GUZTIAK, ESKATU AURREKONTUA!**

- autoak ·etxeak ·bizi-aseguruak ·komunitateak ·merkataritza-dendak
- enpresak ·pentsio planak ·istripu aseguruak ·ontzi aseguruak

Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria [pikabea@infonegocio.com](mailto:pikabea@infonegocio.com) J-0078EUS

## Albiste iruditan

# Oria ibaiaren inguruko argazki lehiaketa

Udalerria alderik alde zeharkatzen duen *erriyoa* hizpide nagusi hartuta antolatatu du Andatza Mendizale Elkarteak, II. Argazki Lehiaketa; "Oria ibaia Usurbilen" izenburupean hain zuzen. 2012ko edizio honetan parte hartzerantz animatzen denak beraz, Oria ibai inguruko argazkiak atera beharko ditu.

"Usurbil inguruan ba ditugu hainbat erre-kasto eta ibai. Oria ibaia nagusi. Uraren korrontearen gainera hiru zubi eder ibaiaren biertzak lotzen. Aliriko zubia Zubietan, Zorrotzeko zubia Santuenean, eta Altzonazkoa Txokoalden. Uraren korronteari jarraituz bideratuko dugu 2012ko argazki lehiaketa. Ziur gaude askok aprobetxatu duzuela zuen argazki-kamera hartzeko eta argazki batzuk Oria ibaian ateratzeko, eta zer esango duzue, argazki horietako batengatik saritxoren bat irabazteko aukera izanez gero...?", berri eman dute antolakuntzatik.



Andatzak antolatatu du argazki lehiaketa.

### AZAROAREN 15ERA ARTE

Txapelketan parte hartu asmo dutenentzat oharra; argazkiak azaroaren 15eko arratsaldeko 20:00ak baino lehen aurkeztuko beharko dira.

Lehiaketari buruzko gainerako oinarriak [andatza.com](http://andatza.com) web orrian daude ikusgai.

Irabazlearen berri, Mendi Astearen baita emango da ezagutzera; azaroaren 30ean ostirala.

## Laburrean

### Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko azken ostiraleko elkarretaratzea burutuko da urriaren 26 honetan. Herrira bilguneak deituta, iluntzeko 20:00etan ekingo zaio mobilizazioari.

### Kantu-jira larunbat arratsaldean

Heldu da urriko azken asteburua, eta baita honenbestez, kantu zaleen hitzordua ere. Larunbat honetan, iluntzeko 19:00etan abiatuko dira, frontoi ingurutik. Kantuz airtzeko gogoz den orok har dezake parte.

### Asteburu honetan, ordu aldaketa

Larunbatetik igande goizaldeko 3:00ak ailegatzetan 2:00ak izango dira. Aldaketa honekin, neguko ordutegia indarrean jarriko da. Egunak laburtzen joateaz gain, dezente lehenago ilunduko du urriaren 28tik aurrera.

# noaia

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaia.com](mailto:elkartea@noaia.com) /// [www.noaia.com](http://www.noaia.com)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Uuskal preboak



Uuskal Herrira?

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Arantxa Zulaika,  
[publizitatea@noaia.com](mailto:publizitatea@noaia.com).

**Diseinu berria:** Erroitx S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

**erredakzioa@noaia.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Aloña Esnaola,  
Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria  
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,  
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,  
Denis Elortza, Pello Aranburu,  
Xabier Aranburu, Inma Balda,  
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaiz Agirre,  
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia  
Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

## Egun haundiya

**H**arluxet hiztegi enziklopediaren arabera, Ospatu aditzaren esanahia hau xe da: "Gertaera edo egun jakin bat jai edo ekitaldi bereziren batez gogoratu; gertaera jakin bat dela eta jai edo ekitaldi bereziren bat egin".

Duela aste pare bat gurasoek 50 urte bete zituzten ezkondu zirenetik, eta gertaera hori modu berezian ospatu genuen. Hori bai meritua! Loreak, argazkiak, opa-

riak, bertsoak, muxuak, bazkari ederra... horiek izan ziren protagonista. Ama eta aitaren irrifarrera ikustea besterikez zegoen zein pozik zeuden ikusteko. "Egun haundiya baita gaurkua!", batek eta besteak etengabe ahotan genuen esaldia.

Urrezko ezteietara ez baina 500. zenbakira iritsi da Noaia! ere. Bada zerbait. Correoseko eraikin zaharrea eman genituen lehen urrats haieztatik mila oroitzapen

etortzen zaizkit burura; izena erabaki genuen bazkaria, inkestan agertu nahi ez zuten pertsonen "ehiza", argazkiak geronek nola errebelatzen genituen, inprentara eraman aurreko ordu amaigabeak eta urduritasunak... Baina bagenekien zerbait garrantzitsua oinarriak ari ginela jartzen, eta ilusio izugarria genuen. Gaur egun, Noaia! usurbildarrentzat proiektu sendoa eta ezinbestekoa bihurtu da, bai euskararen nor-

malizazioan, bai herrigintzaren kohesioan. Eta ni oso harro nago nire zatitxo eman dudalako.

Azaroaren 2an ekitaldi berezia ospatuko dugu Potxoan. Urte hauetan guztietan Noaia! Ingu-ruan lanean aritu garen lagunarteko tertulia egingo dugu, pasadizoak gogoratu eta giro ederrean une ederra pasatzeko asmoz. Gonbidatuta zaude,

Egun haundiya izango baita.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | **Idoia Torregarai** | Unai Agirre

## 2013ko Ordenantza Fiskalak, hasieraz onartuak

**G**uztiak hasieraz eta gehiago osoz onartu ziren, Bildu eta Aralarren aldeko botoekin. Hamaikabat eta EAJ-PNV abstenu ziren. PSE-EE-ko udal ordezkaria ez zen osoko bilkuran egon.

Alaitz Aizpurua zinegotziak eman zituen datorren urterako Ordenantza Fiskalen inguruko zenbait zehaztasun. Aipatu zuenez, oro har, KPI igoera (%2,3) aplikatuko da tasa gehienetan. Baina badira aldatetako ere, tasa batzuk mantendu dira eta gobernu taldeak, berri batzuk ere txertatu ditu oraingoan.

Oro har, honako igoerak hasieraz onartu ditu udalbatzak. Zehaztasun batzuk aipatzearen:

1- Ondasun higiezinak: %2,3 (KPI).

2- Udal zergak: zergaren tipoa

KPI indizearen arabera eguneratuko dira.

3- Trakzio mekanikoko ibilgailuak: %95eko hobaria 100 miliako mugan fabrikatutako ibilgailuentzat.

4- Eraikuntza, instalazio eta obrak: lur higadura, lur erauzketak, lauketak, indusketak eta bete lanentzako tarifa ezartzen da, %5a.

5- Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga: 2010ean tasa %10ekoa zen, aurten %12koa.

6- Ur-hornidura zerbitzuan, tarifa finkoan eta ur sarea lotzean: %2,3 (KPI igoera). Tarifa aldakorrean (kontsumoan), %5eko igoera.

7- Hondakinen bilketa eta kudeaketa zerbitzua: %2,3 (KPI igoera).

8- Zerbitzu publikoak: jardueren araudian, alde aurretik baimena behar dutenak eta ez dutenak desberdindu dira.

9- Udal jabetza erabiltzeagatikotasak: hesiak, andamioa, zutabe.. ezartzeagatikotasetan txabolak gehitu dira. Bakoitzeko eta eguneko jarri dute tasa.

10- Zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatikotas prezio publikoen igoerak:

-Buruntzaldeko Kirol Patronatuek adosturik, zenbait zerbitzutan: %6,51ko igoera.

-Ikastaroetan: %17koa.

-Zerbitzuetan (squash eta sauna izan ezik): %2,3koa.

11- Eguneko Zentroa: erabiltzaile autonomoentzat, zerbitzua- ren prezioan igoerarik ez.

12- Udal lorazaintza zerbitzua ezartzen da:

-Lorezaintza gunea: mozketa bakoitzeko, 20 zentimo metro karratuko.

-Lorezaintza setoa: 2 euro metro linealeko.

13- Edalontzi berrerabilgarrien zerbitzua ezartzen da, herriko irabazi asmorik gabeko talde-

entzat. Bueltatzen ez den edalontzi bakoitzagatik ordaindu beharko dena, beti ere %5eko galera kontuan izanda:

330 ml edalontzia: 0,33/Unitatea.

500 ml edalontzia: 0,39/Unitatea.

1000 ml edalontzia: 0,62/Unitatea.

14- Sutegi, Artzabal eta Potxoenea aretoen erabilera: tarifak ordaindu beharrik ez, Usurbilgo irabazi asmorik gabeko talde eta entitateek, ezta interes publikoak diren ekitaldiak antolatzen dituzten usurbildar norbanakoek ere.

15- Udal baratzen erabilera:

30 metro karratuko barata: 42,3 euro/urtea

60 metro karratuko barata: 84,6 euro/urtea.

16- Udal etxebizitzaren erabilpena, zerbitzu eta jardueren prezio publikoen ordenantzan ezartzen da.

# Kirol Patronatua desegitea hasieraz onartu du udalbatzak



Kirol zerbitzua udal egituran txertatzeko asmoa du gobernu taldeak.

**A**ldaketarik ez bada, 2013ko urtarrilaren 1ean Usurbilgo Kirol Patronatua desegin eta udal egituran txertatuko dute. Aipatu erakundea desegitea hasieraz onartu zuen udalbatzak, urriaren 16an burutu zen ezohiko osoko bilkuran. Proposamenaren alde agertu ziren, Bildu, Aralar eta EAJ-PNV. Abstentziora jo zuen aldiz, Hamaikabatek. PSE-EE-ko udal ordezkaria ez zen egon aipatu saioan.

Erabaki honen bidez, udal txostenak jasotzen duenez, "tokiko eskumena duen zerbitzu publiko hau Udal Erakunde Autonomoaren bidez (Kirol Patronatuaren bidez) zuzenean kudeatu beharrean, beste udal zerbitzu batzuk bezala, Udalaren bidez zuzenean kudeatu nahi da".

## GABEZIAK

Zergatia ere jasotzen da bertan. "Zerbitzu publiko bat Udal Erakunde Autonomo baten bidez zuzenean kudeatzean, zerbitzuak autonomia handiagoa izaten du eta kudeaketa administratiboa arinagoa eta eraginkorragoa izaten da; zerbitzua kudeatzeko orduan erakunde publiko eta pribatuen parte-hartzea bermatu behar dela ahaztu gabe. Hala ere, ez da hori gertatu, Estatutuen arabera Udalak Patronatuari buruzko zuzendari eta begiramen eginkizun zorrotzak bete behar dituelako eta Patronatuaren funtzionamenduan behin baino gehiagotan ez direlako Estatutuak eta legeak aplikatzen dituen prozedura administratiboak bete, gabezi ugari sumatzen dituztelarik udaleko idazkaritza eta kontuhartzailletza sailek".

Estatutuak eta legeak betetzeko zailtasunekin batera, 2010eko Auditoriak, arlo ekonomikoan prozedurak eta kontrolak jartzea beharrezkotzat jo zuen. Eta bestalde, iazko ekitaldi ekonomikoaren ikuskeraren egiten ari da Euskal Herriko Kontu Epaitegia eta "beraien iritziz ere Kirol Patronatuak ez ditu legezko prozedurak betetzen arlo ekonomikoan".

Honez gain, udal txostenaren arabera, "Patronatuak ez du bere eginkizuna betetzen zerbitzua bere kabuz kudeatzeko eta deszentralizatzeko orduan, eta horrek udal zerbitzu teknikoaren menpekotasuna eta bikoiztasun administratiboa dakar".

## UDAL ORDEZKARIEN ERREAKZIOAK

**Aralarretik** positiboki baloratu zuten proposamena, Joxe Ramon Furundarena esanetan, "bide onetik hartutako erabakia da". Baina orain arte Kirol Patronatuaren dagoen parte hartzea bultzatzen jarraitzeko ahalegina egitea eskatu zuen. "Ia lortzen dugun Kirol Batzordeak parte hartze hori mantentzea", adierazi zuen.

**Hamaikabateko** bozeramaile Luis Mari Ormaetxeak bapateko erabakia izan zela azpimarratu zuen, eta informazio falta zuela gaineratu. "Informazio subjektiboan oinarritutako erabaki bat izango da", adierazi zuen.

**Mertxe Aizpurua** alkateak bat egin zuen Aralarrek parte hartzea sustatzen jarraitzeko eginiko proposamenarekin. Hamaikabat taldetik adierazitako informazio faltarekin desadostasuna agertu zen. "Arrazoiak hor daude, ez dago besterik. Garbi ageri da, hartu beharreko neurri bat dela", adierazi zuen.

## Udal batzorde berri baten sorrera

Batzordetik igaro ondoren, azken osoko bilkuran hasieraz onarturiko erabakia honek honakoa suposatuko du:

-Erakundea bera desegitea eta estatutuak indargabetzea.

-Kirol Patronatua desegiten den unean, udal kirol zerbitzua Udalak bere gain hartzea.

-Udal batzorde informatzaile berri bat eratzea: kirol alorrekoa. Eta bertan, "egun Zuzendaritza Batzordea osatzen duten ordezkariak (ikastetxeen ordezkaria, kiroldegiko erabiltzaileen ordezkaria eta herriko kirol elkarten ordezkaria) parte hartzea bermatzea".

-Kirol Patronatua desegiten den datan zintzilik geratzen diren eskubide eta betebeharren kargu egitea Udala. Eskubide eta betebeharrak kobratu eta ordaintzeko udal aurrekontuan txertatzea.

-Kirol Patronatuari atxikitako Usurbilgo Udaleko ondasunak desatxikitzea.

-Kirol Patronatuaren banku kontuen ezeztatze eta ixtea eta saldoak Usurbilgo Udalaren titularitadedun kontu operatiboetara igarotzea.

-2013ko ekitaldira begira, eta aurrekontuei dagokienez, Alkatzetza egoera berria kontuan hartzea.

-Kirol Patronatuari atxikitako langileak udal langileak izatea, lanbide kategoria, ordainsari maila, lan baldintza, antzinatek eta abarren aitortpen espezifikorekin. Langileon plaza eta lanpostuak Udalaren lanpostuen zerrendara batzea.

-Kirol Patronatuaren deklaraturako datu-fitxategien titularitatea Usurbilgo Udalari subrogatzea.

-Kirol Patronatua desegin eta udal egitura txertatzeko data: 2013ko urtarrilaren 1a. Bestela, erabakiaren behin betiko onespenera dagokiona.

-Alegazioetarako epea: 30 egun. Erreklamaziorik ez bada, erabakia behin betiko onartutzat joko da.



Alegazioak egiteko 30 egun daude.

# “Luze joan da, baina eskola

“Kolonbian bahituta” (Txalaparta 2012), Gari Udaberen lehen liburua

**2**003ko irailaren 12an, Kolonbiako ELNk Asier Huegun euskalduna bahitu zuen eta, harekin batera, ingeles bat, alemaniar bat eta lau israeldar. ELNk bahiketa egiteko argudio politikoak eman zituen, eta auziak berehala oihartzun handia izan zuen Euskal Herrian. Bahitzaileek Asierri eguneroko bat idazten utzi zioten eta eguneroko horri jarraituz osatu du “Kolonbian bahituta” (Txalaparta 2012); Gari Udaberen ezinbesteko laguntzaz idatzi duen liburua.

**Liburu hau idazteko asmoa aspaldikoa da. Zergatik luzatu da hainbeste liburuaren argitaratzea?**

**Gari Udabe.** Lehenbizi, oso lasai hartu genuelako istorio hau. Ez genekien argitaratua izango zenik ere.

Denbora dezente pasa genuen grabazioak egiten, Asier Huegunen istorioak jasotzen. Astean behin edo elkartzeko ginen, bera eta ni libre ginenean. Hasi eta bi urtera edo izan zen, grabatutako elkarrizketak transkribatu genituenean. Berritoki orratzualdi bat eman be-



Lau eskutara idatzi dute liburua Gari Udabek eta Asier Huegunek.

har izan genion, eta artean editorea aurkitu gabe ginen. Hor ere, denbora joan zen.

Kontuan izan bi pertsona gaudela liburu honen atzean. Nahiz eta nik idatzi, Asier Huegunen onespina behar dut. Ez da nik idatzi, entregatu eta listo. Idatzi, erakutsi, Asierrek irakurri, bere bedekapena jaso... Editorearen kaxoian ere, egon zen bolada batean.

Arrazoi horientatik joan da mantso.

**Lehen pertsonan idatzia da go liburu. Tonoa topatzea zaila izan al da?**

Bai hala da. Ez zegoen horrela planteatuta eta lehen pertsonan idaztearena gerora etorri zen. Besteak beste, hiru-

*“Gauza bat kontaktzen zitzagun hedabideetan baina, benetan, beste bat ari zen gertatzen”*

garren pertsonan idaztea errazago egiten zitzaidalako niri. Lehen pertsona kontaktzen dituzunean gauza batzuk, Asierren azalean sartu behar duzu eta hori egiten zait zailena. Lehenbizi hirugarren pertsona idatzia izan zen eta gero lehen pertsonara egokitu genuen. Zerua eta lurra. Diferentzia nabarmena da.

**Hurbilago egiten da kontaketa bera, baina baita kontatutakoa ere.**

Hala da, uste dut aldaketa horrekin asmatu egin genuela. Gainera, lortzen duzu irakurlea identifikatzea pertsonaiekin. Badirudi abentura liburu bat irakurtzen ari zarela.

**Bahiketa 2003an eman zen eta hedabide ezberdinetako titularrak erantsi dituzue liburuan. Bahiketaren beraren**

**“Asier Huegunek ez zuen inoiz koherentzia galdu eta hori liburuan ondo jaso dela uste dut”**

**Funtsean, bahiketa bat kontaktzen da liburuan. Pasarte batzuk idaztea ez zen lan samurra izango.**

**Gari Udabe.** Kolonbiako egoera oso konplikatu da, ez da erraza ulertzeko. Oso egoera nahasia da.

Basoan harrapatu zuten Asier.

Lehen bi asteetan ez zekien zeintzuk ziren bahitzaileak. Asierrek Kolonbiaren berri bazuen, bazekien zer zen ELN, bere helburu batzuekin ere batetor zitekeen... Baina ELNk berarekiko duen tratua ez dator bat berak gerrilarekiko duen irudiere-

kin, eta hor txoke ideologiko-emozional bat emango da Asierren baitan. Nik uste koherentzia handiarekin esan egiten dizkiela gauza horiek guztiak. Uste dut koherentzia ez duela inoiz galtzen eta hori liburuan ondo jaso dela uste dut.

# baten modukoa izan da”



Mikel Soto (Txalaparta), Asier Huegun eta Gari Udabe, aurkezpen ekitaldian.

“Testigantza erreal bat jaso dugu eta oso gustura nago egindako lanarekin”

**errealitate eta hedabideek islatzen zuten errealitatea uztartu dituzue. Eta ez ziren beti bat etortzen.**

Nire kazetari formazioa geratu da hor agerian. Kazetarion istorioa ere bada hau. Kazetari jendearekin nabil egunotan eta asko dira istorio honekin akordatzen direnak. Jende arruntak igual ez, baina istorioa jarraitu zuten kazetariarentzat ordukoa berriro gogora ekartzeko moduko liburua da.

Konparazio hori egiten hasi ginen eta oso polita iruditu zitzaidan kontrastea: momentu askotan gauza bat kontatzen zitzaigun hedabideetan baina, benetan, beste bat ari zen gertatzen.

**Prentsaurrekoan adierazi zenuen. Lehen zirriborroa Arantxa Iturbe kazetariak eta idazleak irakurri zuen eta bere onespina oso inportantea**

**izan zela zuretzat.**

Hainbeste buelta ematen dizkiozu liburuaren ideari, maiz perspektiba galdu egiten dela. Ezinbestekoa izan zen hura eta Txalapartako editoreak bere iritziarekin ere beste bultzada bat eman zion liburuari. Aurrera eginez, helmuga gertuago ikusten duzu.

**Biren artean idatzita dago liburua. Zerbait utzi behar izan duzu bazterrean?**

Asierrek berak aitortzen du. Bahiketatik bueltan etxean ez dutela gertatutakoaz asko hitz egin. Eta jende asko izan du galdezka. Bere inguruko jende asko dago liburu honen zain.

Nik lehenbiziko grabaketa horiek egin nituenean, uste dut istorio horiek entzun zituen lehen pertsona izan nintzela.

Nire irizpideak erabiliz, hainbat pasarte nabarmendu nituen. Gero egia da hainbat gauza kendu zituela berak. Den dena ez dago kontatuta. Baina guretzat inportanteena dena jaso dugu. Gauza batzuegatik ere borrokatu egin behar izan dut baina beti oso

giro onean, zentzu horretan ez dugu inolako arazorik izan.

Distantiak markatu gaitu azken aldi honetan, ni atlantikoaren alde batean nago (New York-en bizi da), bera beste aldean. Baina asmatu dugu lan egiteko metodologian eta lan egiteko moduan.

**Lehen liburua duzu hau. Antzeko beste egitasmorik baduzu buruan?**

Esperientzia ederra izan da. Luze joan da baina eskola baten modukoa izan da. Testigantza erreal bat jaso dugu eta oso gustura nago egindako lanarekin.

Gogorik ez zait joan beste bat idazteko, baina ez dut ideiarik ere sekulan idatziko ote dudana beste libururen bat.

Hau ondo zabaltzea gustatuko litzaidake, jendearekin feedback hori izatea... Ikustea zein neurritaraino iritsi den, kontatzeko modua gustukoa izan duen jendeak... Uste dut oso irakurteraza dela liburua. Istoriok engantxe puntu bat baduela, abentura liburu bat bezala baita.

**Gustura bizi da New York-en, eta “momentuz han jarraituko dut”**

**Idazketa bera ere abentura bat izan al da?**

**Gari Udabe.** Ez dakit abentura ote den hitz egokiena... Serio jarrita, lan asko, ordu asko eta zalantza asko dauzka liburu honen atzean. Garbi genuen gauza duin bat argitaratu nahi genuela. Garbi genuen Txalapartaren baitan bazuela tokia honek. Askok gustatu zitzaizen hasieratik. Asierri, bahiketa garaian, lau bat liburu eman zizkieten irakurtzeko. Eta horietatik bat edo bi Txalapartak argitaratuak ditu hemen. Segituan sortu zen konexioa eta konplizitatea.

**Azken hiru urteak New York-en egin dituzu. Zer asmo dituzu?**

New York-era noa (han da honez gero) eta ez dakit noiz etorriko naizen berriro. Momentuz gustura nago han, baina egunez egun erabakiak hartzen ari naiz eta horrela egin ditut hiru urte eta horrela jarraituko dut.

**Astean behin Berrian idazten duzu.**

Ez dut hemengoarekiko lotura galdu nahi. Hori oso garbi neukan joan nintzenean eta bereziki ahalegina egin dut hori ez galtzeko.

**Eta esatari lana, ez al duzu faltan botatzen?**

Azkenaldian bai. Nire media izan da. Pentsa, 17 urte egin ditut irratiari. Itzuli noiz? Ba ikusiko dugu etorkizunak zer esaten duen.

# 339 langabetu irailean Usurbilen, eta goranzko joeran



Inguruko enpresek ez dituzte garai onenak bizi.

**E**statuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ezagutzera eman berri ditu Usurbilgo iraileko langabezia datuak. Albiste onik ez darte; Usurbilen berriz ere gorantz egin du langabezia joan den hilean. 339 langabetu zenbatu dituzte guztira, abuztuan baino 8 gehiago. 2005az geroztik, erregistratu den kopuru altuenetik (341, 2011ko udaberrian) gertu gaude jada.

Gutxigatik bada ere, lanik gabe dauden emakumeak gehiago dira gizonenak baino, 166 eta 173 hurrenez hurren. Adin tarteei begira, aurreko hilabeteetako joerak bere horretan mantentzen dira. 25-44 urte arteak biltzen du langabetu kopuru handiena. Gizonezkoen kasuan, 25-44 urte artean 93 langabetu, 89 emakumezkoetan. 45 urtetik gorakoan artean ordea, bada desberdintasunik. Gizonezkoen kasuan, nabarmen egiten du behera langabetu kopuruak, emakumezkoen kasuan ez hainbeste.

Ekoiaren sektoreak aintzakotzat hartuta, askogatik zerbitzuen sektorean da-

go lanik gabeko herritar gehiena, 203 guztira. Askoz gutxiago gainerako sektoreetan.

## BURUNTZALDEAN

Bailarako udalerrietan honakoa da iraileko langabezia tasa: Andoainen 1.079, Astigarragan 291, Hernanin 1.345, Lasarte-Orian 1.342 eta Urnietan 380. Gipuzkoa osoan, 45.980 langabetu zeuden irailean. Usurbilgo iraileko langabezia datuak zehatzago, hemen:

## NABARMEN GORANTZ, IAZKO IRAILETIK HONA

Urte garai honetan argitaratu ziren 2011ko iraileko langabezia datuekin alderatuta, nabarmen igo da lanik gabe dauden herritarren kopurua. Iaz 309 ziren langabetuak, orain 339 dira.

## GENEROAREN ARABERA

### Gizonezkoak:

< 25: 19. 25-44: 93. > = 45: 54.

### Emakumezkoak:

< 25: 11. 25-44: 89. > = 45: 73.

## Hezkuntzako parte hartze prozesua abiatzera doa

Urriaren 24 honetan abiatuko da Usurbilgo Udalak antolatutako hezkuntza alorreko parte hartze prozesua. Etorkizuneko Usurbilgo hezkuntza eredu bateratua adostea da helburua. Udalak herritarrekin batera jorratu nahi du bide hau.

Gaia: Egoeraren diagnostiko partekatua.

Ordua: 18:30.

Lekua: Potxoenea.

Bileraren iraupena: 2 ordu.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## Erretzeari uzteko ikastaroko izen-ematea

Ostiral honetan, urriaren 26an itxiko da, Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuak erretzeari uzten laguntzeko antolatua duten ikastaroan izen emateko epea. Apuntatzeko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da edota bertara deitu, 943 371 110 telefono zenbakira. Ikastaroa, urriaren 30ean hasi eta abenduaren 18an amaituko da. Saioak, asteartero, 18:30-19:45 artean Artzabalena. Dependetzia fisikoa eta psikologikoa landuko dira, Minbiziaren Aurkako Elkarteko psikologo Maider Sierrak zuzenduriko ikastaroan.

## Liztor asiarrak kabi bat ikusten baduzu, deitu udaltzaingora

Erlezain Elkarteko ordezkari Julian Urkiolak, liztor asiarrak ekar zitzakeen arriskuez ohartarazia zuen NOAUA! bidez. Urria amaierara arte kabiak egiten jarraituko zutela, eta udazkenean murgiltzarekin batera, hostoak erortzen hasi eta orduan agertzen hasiko zirela inguruotan dauden kabiak. Inork halako kabirik ikusiko balu, Udaltzaingora deitzeko mezua zabaldu dute; 943 361 112 telefono zenbakira.

**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra  
943 24 01 76 eta  
649 435 470  
errazkinsl@euskalnet.net  
Oztaran auzoa 33, URNIETA

**Patri Jatetxea**  
  
K./nagusia 14. © 943 362 725

Zuen  
publizitatea  
hemen  
© 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



# Kontserbak egiteko ikastaroa

**U**surbiltzen taldeak, aurreko urtean ikastaro honek izan zuen arrakasta kontuan hartuta, aurten ere kontserben inguruko ikastaroa antolatzea erabaki du. Kontserbak egiteko prozesuaren inguruan jardungo du 3 orduko ikastaroak, parte-hartzaileek pausuz pausu elaborazioa jarraitzeko aukera izango dutelarik. Berdurak, fruituak eta mermeladak nola kontserbatu ikasiko da.

Urkizu Ustiattegian (Zestoa) barazki ekologikoak, bertako animalien haragia, oilaskoak eta arrautzak ekoizten dituzte, besteak beste. Horrez gain, [www.biourkizu.com](http://www.biourkizu.com) web orrian zehazten duten moduan, “Kalabaza kremak, potti marroia, potti marroi eta kalabazin krema, kalabazin kremak, tomate frijitua, Gernikako piperren (berdeak) mermelada, Lodosako pikillo piperren (gorriak) mermelada, gindilla mermelada (pikante-



Amaia Irazustak eskainiko du ikastaroa.

ak), tomate berdearen mermelada, etab. Umeentzat pentsatutako pureak ere egin ditugu, eta tamaina handiko kontserbak ere egin ditzakegu ikastetxeetarako, egoitzetarako, etab.”

Ikastaroko irakaslea Amaia Irazusta da, Urkizu Ustiattegiko arduradunetako bat (ikus argazkian Ustiattegiko beste arduradun batekin). Eskarmentu handia du kontserbak egiten eta honelako ikastaroak ematen. Beraz, aukera paregabea duzue kontserbak nola egin behar diren

ezagutzeko edo egiten dituzuenok, elaborazio prozesuan izan ditzakezuen dudak argitzeko.

## **Ikastaroaren ezaugarriak**

- Tokia: Agerialdeko sukaldean (Usurbil)
- Eguna: 2012ko azaroaren 10ean, larunbata
- Ordua: 10:00tik 13:00ra
- Gehieneko partaide kopurua: 17 pertsona (izen-emate ordena errespetatuko da).
- Izena emateko: izen-abizenak bidali [usurbiltzen@gmail.com](mailto:usurbiltzen@gmail.com) emailera eta izenburuan “kontserbak” jarri, edo ondorengo telefono zenbakira deitu: 649895858 (Oidui). Ikastaroan parte hartzea 15 euro kostatuko da (langabetuek 10 euro) eta egun berean ikastaroa hasi aurretik ordainduko da. Izena emateko azken eguna 2012ko azaroaren 6a izango da.

# Lursailak, baratzeak lantzeko

**G**ipuzkoako 16 udalerrietara hedatu asmo duen Baratze Parke Sarea osatu asmo du Kutxa Ekoguneak. “Elikadura eta ohitura osasuntsuak sustatzearen” aldeko egitasmo berri honi esker, “norberaren barazkiak era ekologikoan egiteko aukera eskainiko du. Aisialdi aktiborako topaguneak izango dira, giza talde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremana bultzatuko duen gune berdea. Bertan belaunaldi ezberdinen arteko trukea emateko aukera izango da, txiki zein helduen artean, naturarekiko errespetua sustatuz”.

## **LURSAILEN ZOZKETA, ABENDUAN**

Sare horretan integratzen lehenak, Usurbil eta Lezo izan dira. Lezon 64 lursail egokituko dira, Usurbilen 57. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, “egokitzapen lanak hasi berri dira eta aurki herritarrek euren lursail propioak lantzeko aukera izango dute”. Lur sail ba-koitzeko erabiltzaileek komuna eta lanabesen biltegia bere barne hartuko dituen



Olarriondon jarriko dira baratzeak. Argazki-muntaia honetan ikus daiteke nola geratuko den.

etxetxo bana izango dute. Lanak hasi dira bai, eta Kutxa Ekogunetik berri eman dutenez, “abendurako eremu osoa egokituko da. Azaroaren lehenengo astean araudi orokorra onartu eta izena ematearen epea irekiko du Udalak. Abenduan Usurbilgo Baratze Parkea zabalduko da erabiltzaileei. Eskainiko dituen zerbitzuen artean etxetxoak, biltegi eta aldagelarekin, konpostaguneak, ikastaroak izango dira. Konpostatze komunitarioetako konposta lantzeko eremuaren aukera ere izango dute herritar guztiek”. Lur-

sailak zozketa bidez esleituko dira abenduan. Langabetu, jubilatuz, pentsiodun, gazte eta konpostatze komunitarioen arduradunek izango dute lehentasuna.

## **INFORMAZIO GEHIAGO, EKO-GUNE.NET ORRIAN**

Informazio gehiago: [ekogunea.net](http://ekogunea.net). Bertan baratza hauetako erabiltzaileentzat foro bat irekiko da, elkar ezagutu, informazioa trukatu edota kontsultetarako. Interesdunek web orri berean izena eman ahalko dute.

# Euskararen kaleko erabilera

## 1.766 elkarrizketa aztertu ditu Soziolinguistika Klusterrak

**S**oziolinguistika Klusterrak iazko udazkenean Usurbilen eginiko euskararen kaleko erabilera neurketaren emaitza nagusiak dituzue jarraian, urriaren 8an Potxoenean aurkeztu zituztenak. Erabilera zenbatekoa izan den agertzen dute, udalerrri mailan, zonaldeka, sexua edota adinaren arabera. Datu mamitsuak zalantzarik gabe. Emaitzok ez dira lortu herritarrei eginiko inkestak bidez, diskrezioz, Kaxkoan, Olarriondon, Santuenean, Zubietan eta Aginagan kalean ziren herritarren elkarrizketak entzunez eta solaskideen ezaugarriak jasoz. Datorren astekarian, besteak beste, euskararen erabilera eta ezagutzaren artean edota Usurbilen eta beste udalerrri zein herrialdeen artean dagoen alde zenbatekoa den azalduko dizuegu.

Behatutako elkarrizketak = 1.766.  
Behatutako solaskideak = 5.067.  
Usurbilgo biztanleria = 6.062.

### BEHATUTAKO ELKARRIZKETEN HIZKUNTZA

%61,9 euskaraz (3.139).  
%37,7 gaztelaniaz (1.911).  
%0,3 beste hizkuntzetan (17).

### EUSKARAREN ERABILERA BILAKAERA

2001: %54,4  
2006: %57  
2011: %61,9



Potxoenean eman ziren ezagutzera kale neurketen emaitzak.

### ZONALDEKA EUSKARAREN ERABILERA

Aginaga: %92,8.  
Erdigunea: %73,3.  
Olarriondo: %55,3.  
Santuenea: %25,5.  
Zubieta: %61,5.

### GAZTELANIA ETA BESTE HIZKUNTZEN ERABILERA

Aginaga: gaztelaniaz %7,2.  
Beste hizkuntzetan, %0.  
Erdigunea: gaztelaniaz %26,6.  
Beste hizkuntzetan, %0,2.  
Olarriondo: gaztelaniaz %44,3.  
Beste hizkuntzetan, %0,4.  
Santuenea: gaztelaniaz %73,8.  
Beste hizkuntzetan, %0,7.  
Zubieta: gaztelaniaz %38,2.  
Beste hizkuntzetan, %0,3.

### ERDIGUNEKO EUSKARA ERABILERA BILAKAERA

1993: %64,2  
1997: %68,3  
2001: %71,1  
2006: %72,4  
2011: %73,2

### SEXUAREN ARABERA EUSKARAREN ERABILERA

Emakumezkoak: %62,8.  
Gizonezkoak: %61,1.  
Guztira: %61,9.

### EUSKARAREN ERABILERA BILAKAERA

2001:  
Emakumezkoen %44,2.  
Gizonezkoen %68,7.  
Guztira: %54,4.

### 2006:

Emakumezkoen %53,8.  
Gizonezkoen %60,1.  
Guztiak: %57.

### 2011:

Emakumezkoen %62,8.  
Gizonezkoen %61,1.  
Guztiak: %61,9.

### GAZTELANIA ETA BESTE HIZKUNTZEN ERABILERA

Gaztelania: emakumezkoen %37, gizonezkoen %38,4.  
Guztira, %37,7.

Beste hizkuntzak: emakumezkoen %0,2, gizonezkoen %0,5. Guztira, %0,3.

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# neurketaren emaitzak (I)

## ADINAREN ARABERA EUSKARA ERABILERA

Haurrak (2-14 urte): %74,2.  
Gazteak (15-24 urte): %74,4.  
Helduak (25-64 urte): %53,8.  
Adinekoak (65 gora): %50,5.

## EUSKARAREN ERABILERA BILAKAERA

### 2001:

Haurrak: %76,1.  
Gazteak: %52,5.  
Helduak: %38,7.  
Adinekoak: %31,4.

### 2006:

Haurrak: %71,1.  
Gazteak: %82,5.  
Helduak: %50,5.  
Adinekoak: %31,4.

### 2011:

Haurrak: %74,2.  
Gazteak: %74,4.  
Helduak: %53,8.  
Adinekoak: %50,5.

## GAZTELANIA ETA BESTE HIZKUNTZEN ERABILERA

**Haurrak:** gaztelaniaz, %25,5.  
Beste hizkuntzetan, %0,3.  
**Gazteak:** gaztelaniaz, %25,6.  
**Helduak:** gaztelaniaz, %45,8.  
Beste hizkuntzetan, %0,4.  
**Adinekoak:** gaztelaniaz,  
%49,3. Beste hizkuntzetan,  
%0,2.

## HAURREN PRESENTZIA

### EUSKARAREN ERABILERA

Haurrak bakarrik daudenean: %74,6.



Haurrak, gazteak eta helduak korrika, irailean euskararen alde egin zen herri lasterketan.

**Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean:** %48,1.

**Haurrak eta nagusiak nahasian daudenean:** %71,3.

**Nagusia hitz egiten:** %62,7.

**Haurra hitz egiten:** %77,6.

## GAZTELANIA ETA BESTE HIZKUNTZEN ERABILERA

**Haurrak bakarrik daudenean:** gaztelaniaz %25,4. Beste hizkuntzetan: %0.

**Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean:** gaztelaniaz %51,6. Beste hizkuntzetan: %0,4.

**Haurrak eta nagusiak nahasian daudenean:** gaztelaniaz %28,3. Beste hizkuntzetan: %0,4.

**Nagusia hitz egiten:** gaztelaniaz %37,1. Beste hizkuntzetan: %0,3.

**Haurra hitz egiten:** gaztelaniaz %21,9. Beste hizkuntzetan: %0,5.

## EUSKARAREN ERABILERA BILAKAERA

### 2001:

Haurrak bakarrik daudenean: %77,5.

Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean: %36,5.

Haurrak eta nagusiak nahasian daudenean: -

### 2006:

Haurrak bakarrik daudenean: %85,2.

Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean: %54,9.

Haurrak eta nagusiak nahasian daudenean: %49,8.

### 2011:

Haurrak bakarrik daudenean: %74,6.

Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean: %71,3.

Haurrak eta nagusiak nahasian daudenean: %48,1.

**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
**659 602 789**  
943 37 29 37  
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**Josue**  
Igeltseritza:  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**BENTÅ  
TÅBERNÅ**  
**HANBURGESAK**  
Oilasko erreak  
Ogitartekoak  
**943 36 93 05**



LTD/Euskaltel



Ordenagailuan



Ipad/Tablet



Mugikorrean

**Nazioa eskura**

[www.hamaika.tv](http://www.hamaika.tv)

# EH Bildu bozkatuena Usurbilen, EAJ-PNVk irabazitako bozetan

**E**usko Legebiltzarreko hauteskundeetan EH Bildu (1.759) izan da bozka gehien jaso dituen indarra Usurbilen. Bigarren alderdiak, EAJ-PNVk lorturiko boto kopurua (799) bikoiztu du. Bozka kopuru gutxiagorekin geratu dira, PSE-EE (313) edota PP (94).

Bada baita nabarmendu beharreko beste datu bat; parte hartzearena. Usurbilgo abstentzio maila, Gipuzkoa edota emaitza orokorren azpitik geratu da, %32,47an. Gipuzkoan %34,59koa izan da eta EAE osoan, %34,17koa. Gainera, azken urteotako joera hautsi da. Eusko Legebiltzarreko aurreko bi hauteskundeetan igotzen joan zen abstentzio maila, orain aldiz jaitsi da udalerrri honetan. Parte hartzea igi da beraz.

Gainerakoan, normaltasuna nagusi Usurbilen, igandeko hauteskundeetan.

## LEGEBILTZARRAREN ITXURA BERRIA

Herritarrek hitz egin dute hauteslekuetan eta hurrengo lau urteotako Eusko Legebiltzar berriak zer nolako itxura izatea nahi duen argi utzi dute.



**Hainbat herritar Udarregi ikastolan bozkatzen, pasa den igandean.**

Gasteizko Parlamentuak dituen 75 eserlekuetatik 48, erakundearen bi herenak honenbestez, indar abertzaleen esku egongo dira; 27 hauteskundeak irabazi dituen EAJ-PNVren esku, eta 21 babes handiena jaso duen bigarren, kasu honetan EH Bildurentzat izango dira. 16 legebiltzarkide lortu ditu PSE-EE alderdiak, 10 PPK eta bat UPyDk.

Ezker Batua eta Ezker Anitza ordezkari gabe geratu dira. Ezker Abertzalearen itzulerak, azken lau urteotan EAJ-PNV, PSE-EE eta PP alderdiek izandako legebiltzarkide kopuruaren murrizketa ekarri du.

## Gasteizera doazen gipuzkoar ordezkariak

### EH Bildu:

IÑAKI ISASI BALANZATEGUI  
PELLO URIZAR KARETXE  
MARIAN BEITIALARRANGOITIA LIZARRALDE  
REBECA UBERA ARANCETA  
LUR ETXEBERRIA IRADI  
JUAN JOSE AGIRREZABALA MANTXOLA  
IÑAKI LAZAROBASTER BADIOLA  
UNAI URRUZUNO URRESTI  
DIANA CAROLINA URREA HERRERA

### EAJ-PNV:

JOSEBA EGIBAR ARTOLA  
MIREN BAKARTXO TEJERIA OTERMIN  
MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA  
ALEJANDRO ETXEBERRIA ARANBURU  
MARIA ISABEL VAQUERO MONTERO  
KERMAN ORBEGOZO URIBE  
ANE URKIOLA ALUSTIZA  
M. GARBIÑE MENDIZABAL MENDIZABAL  
LUIS JESUS (LUKE) URIBE- ETXEBARRIA

### PSE-EE:

IÑAKI ARRIOLA LOPEZ  
SUSANA CORCUERA LEUNDA  
MARIA BLANCA RONCAL AZANZA  
MARIA ARRATE GALLASTEGUI OYARZABAL  
BIXEN ICHASO GONZALEZ

### PP:

MARIA ARANZAZU QUIROGA CIA  
FRANCISCO DE BORJA SEMPER PASCUAL

## Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2012, Usurbilgo emaitzak

Mahaia	Errolda	Botoak	Ballogabeak	Balekoak	Zuriak	Alderdiei Botoak	Abstentzioa	EH Bildu	EAJ	PSOE	PP	Ezker Anitza	EB - Berdeak
1 A - Kaskoa	853	592	1	591	7	584	261 30,60%	353 41,38%	149 17,47%	47 5,51%	15 1,76%	8 0,94%	7 0,82%
1 B - Kaskoa	804	536	2	534	7	527	268 33,33%	304 37,81%	131 16,29%	55 6,84%	14 1,74%	11 1,37%	6 0,75%
2 A Urdaiaga, Santuenea	530	322	4	318	5	313	208 39,25%	156 29,43%	81 15,28%	50 9,43%	16 3,02%	5 0,94%	2 0,38%
2 B - Aginaga	382	255	2	253	2	251	127 33,25%	153 40,05%	84 21,99%	6 1,57%	4 1,05%	1 0,26%	2 0,52%
3 A - Kalezar, Txikiardi	579	396	11	385	2	383	183 31,61%	209 36,10%	100 17,27%	46 7,04%	14 2,42%	7 1,21%	6 1,04%
3 B - Kalezar, Txikiardi	563	382	2	380	4	376	181 32,15%	210 37,30%	106 18,83%	42 7,46%	12 2,13%	2 0,36%	2 0,36%
3 C - Zubieta	353	254	0	254	4	250	99 28,05%	141 39,94%	57 16,15%	28 7,93%	10 2,83%	7 1,98%	3 0,85%
4 - Kaskoa	605	416	1	415	13	402	189 31,24%	233 38,51%	91 15,04%	39 6,45%	9 1,49%	12 1,98%	8 1,32%

<b>USURBIL 2012</b>	<b>4.669</b>	<b>3.153</b>	<b>23</b>	<b>3.130</b>	<b>44</b>	<b>3.086</b>	<b>1.516</b>	32,47%	<b>1.759</b>	37,67%	<b>799</b>	17,11%	<b>313</b>	6,70%	<b>94</b>	2,01%	<b>53</b>	1,14%	<b>36</b>	0,77%
---------------------	--------------	--------------	-----------	--------------	-----------	--------------	--------------	--------	--------------	--------	------------	--------	------------	-------	-----------	-------	-----------	-------	-----------	-------

## Auzolan Eguna Gaztetxean

**G**ernikako Estatutu eguna, jai egun ofiziala izan arren, "jai egun arrotza da guretzako" adierazita, urriaren 12an egin bezala, ostegun honetarako, hilaren 25erako ere Auzolan Eguna antolatu dute Usurbilgo Gaztetxean. Goizeko 9:00etan hasiko dute lan eguna, hamaiketako dastatu ahal izango dute goiz erdian, eta eguna amaitzeko, 19:00etarako asanblada deitu dute.

### FRACKING-ARI BURUZKO HITZALDIA IGANDEAN

Beste hitzordu bat ere antolatu dute Usurbilgo Gaztetxean, kasu honetan, iganderako, urriaren 28rako. Fracking-a edo "hausketa hidraulikoa" delakoaren gaia jorratuko da bertan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Horretarako, gaztetxeok Frackin Ez Araba kolektiboko partaideak gonbidatu dituzte eta hitzaldia eskainiko dute. "Euskal Herrian gas naturala ustiatzeko metodo berri bat erabiltzen hasteko asmoa du Eusko Jaurilaritzak, fracking-a. Araban hilaren 6an irten ziren kalera teknika hau guztiz gai-



Ostegun honetan, goizeko 9:00etan elkarteko deia zabaldu dute gaztetxeok.

tzetsiz, usurbildarrak ere ondorio latzak jasango ditugula jabetu behar dugu Euskal Herrian fracking-a abian jartzen bada", ohartarazi dute gaztetxeok, NOAUA-ko web orrira igorri duen mezuan. Gai horri buruz jardungo dute hitzaldian. Aurretik, "Fracking Hell" dokumental laburra proiektatuko dute. "Bertan, Estatu Batuetako fracking kasuak aztertzen dira eta herritarrek dituzten arazoak testigantzak ateratzen dira"; berri eman du antolakuntzak.

## Urriak 24, Liburutegien Eguna

**L**iburutegien Eguna ospatuko den egun berean, asteazkenean urriaren 24an, Sutegin zenbait berrikuntza martxan jarriko dituztela berri eman du Usurbilgo Udaleko Komunikazio Sailak. Aurrerantzean, udal liburutegian maileguan hartu ahal izango dira Peru Galbetek eginiko Santixabeletako bideoa eta azken jaiotan Ibai Arrietak ateratako argazkiak, formatu digitalean. Bestalde, liburu elektronikoak irakurtzeko bi gailu ere mailegatzeko moduan jarriko ditu udal liburutegiak. Hori gutxi balitz, ordenagailu eraman-garri bat ere erabiltzaileen esku jarriko dute, bertan erabiltzeko. Berrikuntza guztion eta Sutegi udal liburutegiko eskaintza osoaren zehaztasunak jasotzeko gainera, blog bat ere badute. Apuntatu, hauxe da helbidea: liburutegiak.blog.euskadi-net/usurbil/



Aurrerantzean, liburu elektronikoak irakurtzeko bi gailu jarriko dira, mailegatzeko moduan.

### Seaskaren aldeko elkartasun afaria

Hamabigarren urtez Seaskaren aldeko elkartasun afarian parte hartuko dute Nafartarrak taldeok. Otordua, sagardo afaria, larunbat honetan, urriaren 27an ospatuko da Urdiñarben (Zuberoa). Bertako Bil Xokoa elkarrekin elkartuko dira usurbildarrak. Afaritan jasotako laguntza, Seaskako Integrazio Batzordera bideratuko dute.

### Azoka igandean, ABISO taldearen eskutik

"Justizia, kultura eta ongizatea denontzat" izatea nahi duen ABISO elkarteak azoka antolatu du igande honetarako, urriaren 28rako. Goizeko 11:00etatik iluntzeko 19:00ak arte frontoian, norberak eramandako gaiak trukatu, oparitu edo saldu ahal izango ditu. Bide batez, ABISO elkarteak ezagutzeko aukera izango da. Aipatu bilguneak injustizia sozialak salatu eta prebenitu asmo ditu. Baita artea eta kultura jende guztirengana gerturatu ere.

Azokara hurbiltzeko gonbita luzatzen du antolakuntzak. Informazio gehiago nahi duenak, abisosomosmas@gmail.com helbidera idatzi dezake edo 686 554 145 (Ana) telefono zenbakira deitu.

### 1952an jaiotakoekin kinto bazkaria Atxega jatetxean

Aurten 60 urte betetzen dituzten herritarrek kinto bazkaria antolatu dute, abenduaren 2rako. Otordua ospatzeko hitzordua, 14:00etan jarri dute Atxega jatetxean. 1952. urtean jaioa bazara, eta bazkaritara joan nahi baduzu, izen emateko deitu telefono zenbaki honetara: 943 361 380. Apuntatzeko azken eguna, azaroaren 25a. Otorduko prezioa, 31 euro.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L  
teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

# Usurbil FT

Denboraldi berriari ekiteko gogotsu daude futbol taldeetako jokalariaik eta entrenatzaileak



Futbol taldeko kideak, iazko denboraldiko aurkezpen ekitaldian.

**H**erriko futbol taldeek hasi dute, egungo zuzendaritza taldearentzat laugarrena den denboraldi berria. Adin tarte guztietan ordezkari-tza izango du Usurbil FT-k 2012-13 kirol urtean. Kasuan kasuko erronka eta berezitasunekin noski, baina denak ere guztia emateko prest dira.

Bada aldaketarik osatu diren taldeen artean; esaterako, infantiletan talde bat gutxiago izango da, futbol 8 talderik ez da izango aurtengoan, eta al-diz, kadeteetan areto futboleko taldea osatu dute. Kadeteetako talde berria sortu izanaren zergatia, Usurbil FT-ko zuzendari-tzatik berri eman dutenez, “27-28 gaztetxo ditugulako da, 25entzat bakarrik dagoenean tokia. Alternatiba desberdinak aztertzen ibili gara. Aukeretako bat bi jokalaria kanpoan uztea zen, baina ez genuen egoki ikusten. Gainera, 25 jokalarirekin geldituko ginen, eta horietatik 9 astebururo neurketa jokatu ezinik egongo ziren”. Horregatik, modu honetan bideratu dute egoera: “batzuk areto futboleko fitzarekin bakarrik geratuko dira, beste batzuk Futbol 11koekin eta gainerakoek bi fitxa izango dituzte”. Bi urtetako jokalariaik talde bere-

an nahastu dituzte, eta Usurbil FT-tik adierazi dutenez, “hor orain, igoera fasean sartu ahal izateko talde polita dugu”.

## URBIETAK ETA ROTETAK JARRAITUKO DUTE

Realeko bi jokalaria ohik entrenatzaile lanetan jarraituko dute denboraldi honetan ere. Bate-tik, Manu Urbietak infantiletako bi taldeak zuzenduko ditu; neska eta mutilena. Mikel Rote-ta Preferente mailako taldea prestatzeko lanean arituko da. Gustura dabilta zuzendaritza-tik azaldu dutenez, “ahalik eta gorenaren egoteko gogoz”. Biek Usurbilen buruturiko lana nabarmentzen dute Usurbil FT-tik.

Hasieran argi egon ez arren, iaz berreskuratutako nesken taldea ere izaten jarraituko du Usurbil FT-k. Oraingoan kide berriak gerturatu dira gainera, eta lan on bat burutzea da euren helburua, eta “hurrengo urteetan, taldeari segida ematea”.

Jokalaria kopuruz justu samar zebiltzan bestalde, jubenil eta alebinetan. Baina arazoa konpondu dute Usurbil FT-koek. Jubenilen kasuan, “kadeteek lagunduko diete”. Federazioak eginiko kategoria aldaketen ondorioz, mailaz igo direnez, maila berrira egokitu beharko

dira. Alebinen taldea berriz, Añorgatik etorritako kide berriekin osatu dute. Hainbat ate jo ostean izan da, “Añorgarekin oso harreman ona dugu eta erabat prest agertu ziren lehen unetik”. Kide berriak izanda, denboraldiko prestaketa lanak lehenago abiatu dituzte. “Taldea lehenago hasi da entrenatzen, talde kohesio hori bilatzeko”, azaldu dute Usurbil FT-tik.

Futbol Eskolak ere martxan jarraituko du aurtentzen.

## LAGUNTZARAKO DEIA

Futbol taldeen neurketekin batera, Usurbil FT-koek zenbait ekimen osagarri antolatu asmo dituzte berriz 2012-13 kirol urtean; Aste Santuko oporraldiko txokoak, Usurbil Cup edota denboraldi amaiera borobiltzeko ospatu ohi duten Klubaren Eguna. Halaber, klubeko jokalariek, hamabost batek, bilgune barruan burutzen duten lana nabarmendu nahi du zuzendaritzak; guztien laguntza eskertzen dute. Futbol taldeetatik etorkizuneko entrenatzaile taldea osatu asmo dute, aurrera begira. Baina bestelakotan, Usurbil FT-ri ekarpenen bat egitera animatzen denak, atek zabalik dituela adierazi nahi dute. Bitartean, zuzendaritza

talde barruan, iaz hasitako bidetik jarraitu nahi dute: ardurak banatzen eta lan eremuak mugatzen. “Kirol arloa eta arlo ekonomikoa banatu genituen iaz eta nahiko ondo funtzionatu du”, berri eman dute Usurbil FT-tik. Eredu horrekin aurrera jarraitu, eta hirugarren arlo bat, arlo soziala bultzatu asmo dute denboraldi honetan.

## Eskubaloiko lau jokalaria, Euskal Selektzioan

Eskubaloiko taldeak biltzen dituen Usurbil Kirol Elkartearen lau kideek, Euskal Selektzioaren kontzentrazioan parte hartuko dute egunotan. Larunbatean, urriaren 28an, Barakaldon entrenatzaile joateko deituak izan dira, infantil mailan jokatzeko ari diren Estitxu Berasategi eta Ane Irazabal usurbildarrak. Entrenamendu saioa, arratsaldeko 15:45etan hasiko dute, Barakaldoko Lasesarre Kiroldegian. Jubenil mailan, Lur Errekondo deitu dute, ostegun honetarako 11:00etan Barakaldoko aipatu kiroldegian. Egun eta leku berean, baina goizeko 9:30etarako deitu dute Andoni Zubeldia jubenil mailako eskubaloiko jokalaria.

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

11 urteko pisu bat salgai Aginagan, 3 logela, sukalde, egongela, 2 komun, 2 balkoi, garajea (30 m) eta trasteroa. 173.000 euro. VPO baldintzak. 657703091

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 237.000 euro.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com) Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Pisua salgai Atxegalden. Sukalde, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Pisu bat alokatzen da Atxegalden. 4 logela, komuna, sukalde eta egongela. Tel. 653 714 672.

Pisu bat Lasarten. 3 logela, 90 metro, 2 balkoi dena kanpoaldera eta eguzkitsua. 608 671925.

Muna Lurran bigarren solairuan dagoen pisu bat. Oraintxe sartzeko prest. 3 logela, sala, sukalde, komuna eta balkoia. Amueblatua. 650 919 065

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

Alokairuan atiko berria Usurbilen. 2 terraza handikoa. Altzairu berriz hornitua. 665 720 913.

Landetan (Vieux Boucau) apar-

tamentu bat (4 pertsona) alokatzen da, Boucanier erresidentzian. Aste osoa, astebukaerak, nahiz egun askeak. 653 014518

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

Pisua alokatzen da Txaramunto kalean: 3 gela, sukalde, bi komun, sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656757073.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 [nerrezabala1@gmail.com](mailto:nerrezabala1@gmail.com)

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)

Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.

3-5 gela arteko pisua alokagai Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak. 677 780 680.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622

856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 ([gauetan.deitu](mailto:gauetan.deitu)).

**MOTORRA****salmenta,  
garajeak**

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.800 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunto auzoan. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 [nerrezabala1@gmail.com](mailto:nerrezabala1@gmail.com)

Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.

Lokal bat alokatzen da, 90 metro. 250 euro. Gazteentzat egokia, Atxegalden. 628 063 871.

Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura, komuna. 658 716 970.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

**Lan eskaintzak**

22 urteko neska usurbildar bat

eskaintzen da haurrak zaintzeko goizetik eguerdirarte. Esperientzia haurrak zaintzen, udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz



**Zorionak Nora!!**  
Urriaren 10ean 4 urte bete zenituen dagoeneko, ze handia egin zeran! Muxutxo bat Jon, Daddy eta Amatzoren partez.



**Zorionak prexiosa!!**  
Urriaren 18an 4 urte bete dituzu eta! Txokolatezko pastel handia oso ona zegoen!!! Muxu handi bat zure familiaren partez.

**Heriotzak**

**Jose Rodriguez Gallardo**

78 urterekin hil zen urriaren 20an Santuenean





eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrereko lehen maila amaitua. 665754889/692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Heltuak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arra-

tsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritza eta Haur Hezkuntza diplomatu. Badut esperientzia. 652712099.

### BESTELAKOAK

Gasze usurbildarra, ordenagai-

luko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Larru itxura duen txaketa beltz bat aurkitu dugu Aginagako frontoian. Norbaitek galdu badu, udaltzainetatik pasa bila.

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat mar-

kakoak (berri berriak) eta metalezko fundarekin (beltz kolorekoak). Norbaitek aurkitu baditu udaltzaingoan utzi edo telefonoz mezu bidaltzea eskertuko nuke (675 703 276).

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Poxpolin mertzeria traspasatzen

da. 636 462 210.

Kaffa inguruan betaurreko batzuk agertu dira. Galdu dituenak, optikatik pasa bila.

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Ingelese hitz egin nahi, herri-rik mugitu gabe? Ingelesko mintzapraktikarako taldea osatzen nabil. 670 382 999 (Unai).

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai prezio onean. 637 974 994 Itziar

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## Telefono interesgarriak

Udala . . . . .	943 371 951	Taxia (Angel) . . . . .	607 928 770
Atez ateko bulegoa . . . . .	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz) . . . . .	677 373 466
Udaltzaingoa . . . . .	943 361 112	Eusko Tren . . . . .	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada) . . . . .	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua . . . . .	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak . . . . .	943 377 110	Anbulategia . . . . .	943 362 013
Diputazioa - Basetxea . . . . .	943 361 215	Oa botika . . . . .	943 376 076
Bake Epaitegia . . . . .	943 372 336	Iturralde botika . . . . .	943 363 395
Udarregi Ikastola . . . . .	943 361 216	DYA . . . . .	943 464 622
Haur Eskola . . . . .	943 374 061	Gurutze Gorria . . . . .	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola . . . . .	943 364 600	Emergentziak . . . . .	112
Zubietako Herri Batzarra . . . . .	943 372 077	Gonzalez Ehorztetxea . . . . .	943 362 163
Hastapen tailerrak . . . . .	943 360 465	Gipuzkoa Donostia Kutxa . . . . .	943 361 202
KZgunea . . . . .	943 570 999	Euskadiko Kutxa-Laborala . . . . .	943 364 740
Oiardo Kirolegia . . . . .	943 372 498	Banco Guipuzcoano . . . . .	943 370 006
Sutegi Udal Liburutegia . . . . .	943 360 692	Banco Popular Español . . . . .	943 370 411
Zumarte Musika Eskola . . . . .	943 371 594	BBVA . . . . .	943 377 155
Etumeta AEK Euskaltegia . . . . .	607 609 379	Caja Rural Kutxa . . . . .	943 368 842
Kalezar Eguneko Zentroa . . . . .	943 365 249	Argindarra - Iberdrola . . . . .	901 202 020
Gure Pakea Zahar Egoitza . . . . .	943 368 770	Gas naturala - Naturgas . . . . .	902 123 456
Gure Elkarte Zahar Egoitza . . . . .	943 371 751	Telefonica . . . . .	1004
Arrate Zahar Egoitza . . . . .	943 366 340	Euskaltel . . . . .	900 840 840

## Goardiako farmaziak urriaren 25etik azaroaren 4ra

<b>Osteguna 25</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Ostirala 26</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
<b>Larunbata 27</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorb. 6. Lasarte
<b>Igandea 28</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorb. 6. Lasarte
<b>Astlehena 29</b>	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
<b>Astearte 30</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Asteazkena 31</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

<b>Osteguna 1</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorb. 6. Lasarte
<b>Ostirala 2</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
<b>Larunbata 3</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Igandea 4</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE.** Elkano kalea 9, behe. Hernani. Tel.: 943 552 087  
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

**LATAILLADE**  
  
**ITURGINTZA**  
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua  
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

  
 Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**TXAPELDUN**  
**TABERNA**  
 razioak  
 ogitartekoak  
 plater konbinatuak...  
 Muna lurra 2, 943 11 82 53

# Agenda urria

## 26 ostirala

- **"Izan bedi emakumea"**. Antzezlan Suteagin, 20:15ean. Sarrera: 3 euro.
- **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea**. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 27 larunbata

- **Kantu jira**. 19:00etan abiatuko dira, Mikel Laboa plazatik.

## 28 igandea

- **Ordu aldaketa**. 3:00ak ailegatzean 2:00ak izango dira.

## Artisautza Azoka, azaroaren 1ean

**U**rtero moduan, Artisautza Azoka antolatu du Aitzaga Elkarteak azaroaren 1erako. Hamazazpigarren edizioa, datorren ostegun goizeko 11:00etatik aurrera ospatuko da frontoian, aspaldiko partez antolatzaileen egoitza irekia dela gainera. Denetariko produktuez horniturik egongo diren hogeitatu bat postu bilduko dira bertan: bitxigintza, larrugintza, zeramika, otargintza... Gainera, txorizo eta taloa dastatzeko aukera izango da.



Eguerdiko 11:00etan hasiko da Aitzagak antolatu duen azoka. Aurtengoa, XVII. edizioa.

### Datozenak

#### NOAUA!ren Kulturaldia ate joka dator

Azaroa heltzearekin batera ospatuko da, urtero bezala, NOAUA!-k antolaturiko Kulturaldia. Aurtengoa ordea berezia izango da. Irailean aldizkariaren 500. zenbakia kaleratu genuen, eta 16 urteko ibilbidea jorratua du jada, 1996. urtean martxan jarritako egitasmo honek. Aitzakio-kin urteotan herri aldizkari honetan protagonista izan diren herritar, elkarte, gertakari eta beste, **erakusketa** batean jaso ditugu. Azaroaren 2an, 18:30etan inaurguratu eta hilaren 11ra arte ikusgai izango da Sutegiko aretoan.

Honez gain, ez da faltako antzezlan, proiektio edota ikuskizunik. Azaroaren 3an, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak Usurbilen ospatuko duen III. Antzerkizale Egunaren baitan, iluntzeko 20:00etan **"Publikoari gorroto" antzezlanaz** gozatu ahal izango duzue Sutegin.

Azaroaren 10ean, **Alurr dantza taldekoen emanaldiaz** gozatzeko aukera izango da Oiarde Kiroldegian, eta biharamunean, **"Gazta zati bat" dokumentala** ikusketoa Sutegin.

Amaitzeko, azaroaren 30ean, "Leterekin kantu berbetan" hitzaldi kantaldia eskainiko du **Jon Sarasuak**, NOAUA!-k Kantu Taldekoekin batera antolatu duen hitzorduan.

### "Izan bedi emakumea" antzezlan

Azaroaren 3ko Antzerkizale Eguna girotzeko antzezlan bat programatu du Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak, ostiral honetarako, urriaren 26rako. "Izan bedi emakumea" obra ikusteko aukera izango da, iluntzeko 20:15etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Azkoitiko Koldarrak Antzerki Taldekoen eskutik, paradisuan murgilduko gara: "Paradisuan finkatutako fikziozko komedia da. Ekin-tza bakarrean, paradisuko etxeko lan eta gizonaren ugalketaz arduratuko den gizakia sortzeko asmoan, jaungoikoa eta gizonaren artean sortuko diren arazoak kontatzen ditu". Sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira, 3 euroren truke.

### Izen-ematea irekia Antzerki Eguneko ikastaroetan

Antzerki zaletu guztiek Usurbilen dute hitzordua azaroaren 3an, III. Antzerkizale Egunean. Tartean, tailerrak izango dira, adi, ekimenotarako izena alde aurretik eman behar baita:

**Klown Tailerra:** May Gorostiaga, Intujai. Tokia: Potxoenea. Iraupena: 3 ordu. Izen ematea: txerriki@gmail.com. Plaza mugatuak.

**Antzerki testuen idazketa tailerra:** Galder Perez. Tokia: Potxoenea. Iraupena: ordu eta erdi. Izen ematea: txerriki@gmail.com. Plaza mugatuak.

**Arratsaldeko kalejira prestatzera.** Izen ematea: Izen ematea: txerriki@gmail.com.

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirrelektrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

  
ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTA PAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) **USURBIL**

# ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa,  
noaua.com, Udajolas, Inauteri Jaia, Kulturaldia,  
Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

## EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

### noaua

euskararen aterpe



## BAZKIDETZA

IZENA: \_\_\_\_\_ ABIZENAK: \_\_\_\_\_

JAIOTZE DATA: \_\_\_\_\_ JAIOTERRIA: \_\_\_\_\_

N.A.N ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_ HERRIA: \_\_\_\_\_ POSTA KODEA: \_\_\_\_\_

ETXEKO TELEFONOA: \_\_\_\_\_ MUGIKORRA: \_\_\_\_\_

POSTA ELEKTRONIKOA: \_\_\_\_\_ K/K ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

Usurbilgo Noaua kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaren helbideraketa (36€) baimentzen dut.

Sinadura:

Usurbilen,



**K** NOAUA!  
**ULTURALDIA**  
**2012**  
Azaroak 2, 3, 10, 11 eta 30  
**USURBIL**

**AZAROAK 2**, ostirala, **SUTEGI** • 20.00: **ERAKUSKETA** eta **LUNTXA**

**AZAROAK 3**, larunbata • **III. ANTZERKIZALE EGUNA** • 20.00: **“PUBLIKOARI GORROTO”** ANTZERKIA • **SUTEGI** • Sarrerak: Aldez aurretik 8 euro, egunean bertan 10 euro eta bazkideak 6 euro (aldez aurretik Noauaren egoitzan)

**AZAROAK 10**, larunbata, **KIROLDEGIA** • 22.00: **ALURR** dantza garaikidearen **EMANALDIA** • Sarrerak: 6 euro. Bazkideak 5 euro (aldez aurretik Noauaren egoitzan)

**AZAROAK 11**, igandea, **SUTEGI** • 19.00: **“GAZTA ZATI BAT”** DOKUMENTALA • Doan

**AZAROAK 30**, ostirala, **SUTEGI** • 19.30: **“LETEREKIN KANTU BERBETAN”** Jon Sarasuaren **HITZALDI-KANTALDIA** • Doan

Antolatzailea:

**noaua**

Laguntzaileak:



Usurbilgo  
Kantu Taldea